## 500 urteko historia

*Arantzazu Euskal Herriko kristau santutegi bat da, Gipuzkoako gaur egungo probintzian kokatutakoa eta frantziskotar erlijiosoen edo Anaia Txikerren Elkarte batek zuzendutakoa. Andra Mari Ama Birjinaren izena du, eta horrek Euskal Herriko zein kanpoko 18.000 emakume baino gehiagok "Arantza" edo "Arantxa" izena edukitzea eragin du. Azken belaunaldiotan, Santutegiko herri erlijiotasun eta balio sinboliko eta sozialaren zeinuetako bat da.*
*Kristautasunean zein erlijiozko tradizio handi guztietan ere Santutegiak izan dira: gogora ditzagun Lurralde Santuko kristau santutegiak, Mekako* Kaaba, *budatar* "stupak" *edota hinduen erromesaldi jendetsuak. Eta geografia orokor horretan, santutegien inguruko gertakariak denboran zehar iraun du gaur egun arte, esperientzia zaharrak berreskuratu eta berrituz, batzuetan, eta, esperientzia berriei hasiera emanez, beste batzuetan. Behin baino gehiagotan, Santutegien arkitektura eraikuntza berriak modernitatearen adierazpide izan ohi dira, esate baterako,* San Menas, *Egiptoko koptoen artean;* Hastinapur, jainismoaren *jarraitzaile hinduen artean;* Varanasi/Benarésen, *hinduentzat, edo* Lourdesen *katolikoentzat*[1].
*Testuinguru orokor eta iraunkor horretan, Arantzazu ez da berria; aitzitik, lehenengo berriek 1468. urtean, Aloña mendiaren maldan, Oñatiko Konterriko txoko malkar batean, Andra Mariren irudi bat Rodrigo Baltzategi artzainari eginiko "agerpena" aipatzen dute. X. eta XV. mendeen bitartean, artzainei eginiko "agerpen" zikloaren azken adierazpenetako bat da.*

### Jatorriak eta lehenengo mendea (1468-1553)

*Hasteko, XVI. mendeko euskal historiaren bi izen sonatuk gida gaitzakete Arantzazuko Santutegiaren jatorri eta bere hastapeneko bizitzaraino.*
*1522ko urtarrilaren lehenengo egunetan, ia anonimoa zen erromes bat Arantzazuko Santutegira igotzen zen, bertan penitentziazko gaubeila bizitzeko. Seguru asko, inor gutxik erreparatuko zuen berarengan, baina hogeita hamar urte geroago, Erromatik, berak bai gogoratu ahal izan ziola Frantzisko Borjari Santutegira eginiko bisita hura: "Esan diezazuket biziki desio dudala [1553n su hartutako komentuaren zaharberritzea]; izan ere, Jainko*

## *Quinientos años de historia*

Arantzazu es un Santuario cristiano del País Vasco, situado en la actual provincia de Gipuzkoa y regentado por una Comunidad de religiosos franciscanos o Frailes Menores. La advocación del mismo es la de Nuestra Señora la Virgen María (*Andra Mari*), hecho que ha dado lugar a que más de 18.000 mujeres de Euskal Herria y de fuera de ella se llamen "Arantza" o "Arantxa". Es uno de los signos de religiosidad popular y valor simbólico y social del Santuario en las últimas generaciones.
Tanto en el Cristianismo como en todas las grandes tradiciones religiosas han existido Santuarios: recuérdense los Santuarios cristianos de Tierra Santa, la Kaaba de la Meca, las *stupas* budistas, las multitudinarias peregrinaciones hindúes.
Y, en esa geografía general, el fenómeno santuarial ha perdurado a través del tiempo hasta nuestros días, a veces recuperando y renovando tradiciones antiguas, a veces iniciando nuevas experiencias modernas. Más de una vez, las nuevas construcciones arquitectónicas de los Santuarios son expresión viva de modernidad: San Menas, entre los coptos de Egipto; Hastinapur, entre los jainistas indios; en Varanasi/Benarés, para los hindúes, o en Lourdes, para los católicos[1].
En ese contexto general y permanente, Arantzazu no es algo reciente; al contrario, las primeras noticias se refieren al año 1468 y a la "aparición" de una imagen de Nuestra Señora al pastor Rodrigo de Baltzategi en las laderas del monte Aloña, en un rincón abrupto del Condado de Oñate. Es una de las últimas manifestaciones del ciclo de "apariciones" a pastores que va del siglo X al XV.

### *Los orígenes y el primer siglo (1468-1553)*

De entrada, dos nombres ilustres de la historia vasca del siglo XVI pueden guiarnos hasta los orígenes y primera vida del Santuario de Arantzazu.
En los primeros días de enero de 1522, un peregrino casi anónimo subía al Santuario de Arantzazu para vivir en él la vigilia penitencial. Seguramente, apenas nadie reparó en su presencia, pero treinta años más tarde, desde Roma, él sí pudo recordar a Francisco de Borja aquella visita hecha al Santuario: "Para mí os puedo decir que tengo particular causa para la desear [la restauración del convento incendiado, en 1553];

*2. orrialdea*
*Arantzazuko Basilikako absidea, amildegitik ikusita.*

*5. orrialdea*
*"Pablo jaunaren lana" bezala ezagutzen ziren abside berriaren lanak, 1924 aldera. Francisco Alonso Martos arkitektoaren proiektuari 1920ean eman zitzaion hasiera, eta lanak Pablo Ruiz de Gámizek finantzatu zituen, 1929an gelditu ziren arte.*

*8-9. orrialdeak*
*Arantzazu 1892an. Aurrean eliza ikusten da, eta atzean errepidea eta oin berriko komentua (1884). 1909an, komentu zaharra berritu zenean, Eskola Serafiko bihurtu zen oin berrikoa.*

*10-11. orrialdeak*
*Arantzazu gaur egun. Oiza eta Laorgaren Basilika (1950-1955) amildegi gainean dauden ostatuaren eta komentuaren artean ageri da. Atzean, Alonso eta Hernándezek (2002-2005) eraikitako Gandiaga Topagune berria ikus daiteke, 1960ko hamarkadan eraikitako Apaiztegia ordezkatu zuena.*

*12. orrialdea*
*Komentuko eliza barneko erretaula. 1891an egin zen eta 1950eko eraberritze lanak hasi arte bertan eduki zen. Gaur egun, Pasai Donibaneko elizan aurkitzen da.*

Página 2
Ábside de la Basílica de Arantzazu vista desde el barranco.

Página 5
Vista de las obras del nuevo ábside, conocido como "Obra de D. Pablo", hacia 1924. Este proyecto del arquitecto Francisco Alonso Martos fue iniciado en 1920 y financiado por D. Pablo Ruiz de Gámiz hasta su paralización en 1929.

Páginas 8-9
Vista de Arantzazu en 1892, con la iglesia en primer término y, al fondo, la carretera y el convento de nueva planta (1884), que se convertiría en Colegio Seráfico tras la restauración del antiguo convento en 1909.

Páginas 10-11
Vista actual de Arantzazu, con la Basílica de Oiza y Laorga (1950-1955) encajada entre la hospedería y el convento colgados sobre el barranco. Al fondo, el nuevo Gandiaga Topagunea de Alonso y Hernández (2002-2005) que sustituye al Seminario construido en los años sesenta.

Página 12
Vista del interior de la iglesia conventual con el retablo de 1891 hasta la reforma de 1950, hoy conservado en la iglesia de Pasajes de San Juan.

1. *Gizarte eta erlijio gertakari horren garrantzi historikoa honako honetan ikus daiteke: J. Chélini - H. Branthomme (1987),* Histoire des pèlerinages non chrétiens. Entre magique et sacré: les chemins des dieux *(Kristauak ez ziren erromesaldien historia. Magiko eta sakratuaren artean: Jainko bideak), Paris, 1987. Kasu berri eta hurbil bat ezagutzeko honako hau irakur daiteke: R. Harris,* Lourdes Body and Spirit in the Secular Age, *London, 1999 (Frantses bertsioa ere bada: Paris).*
2. *E. Garibai Zamalloa,* Esteban Garibai Zamalloaren "Las Memorias" (Oroitzapenak), *Arrasateko Udala, 2000, 322. or., 329. or.*
3. *E. Garibai Zamalloa,* Los XL libros del Compendio Historial de las Chrónicas y universal Historia de todos los Reynos de España (Espainiako Erreinu guztietako Kroniken eta Historia Unibertsalaren Bilduma Historikoaren XL Liburuak), *Plantin, 1571.*
4. *"Garai hartan, Gipuzkoako probintzian, Oñatiko hiribilduko basamortu batean Arantzazuko Andra Mariren deboziozko irudia aurkitu zenekoa, eta, etxe saindu horrek izan dituen gertakari gogoangarrienak, Txikerren Ordeneko erlijiosoen esku geratu arte": Garibai 1571, XVII. lib., XXV. kap. (II, 1126-1132. orr.).*

1. La amplitud histórica de este fenómeno social y religioso puede verse en: J. Chélini - H. Branthomme (1987), *Histoire des pèlerinages non chrétiens. Entre magique et sacré: les chemins des dieux*, Paris, 1987. Para el conocimiento de un caso moderno y próximo puede verse: R. Harris, *Lourdes Body and Spirit in the Secular Age*, London, 1999 (Hay versión francesa: París).
2. E. Garibay y Zamalloa, *Las "Memorias" de Esteban de Garibay y Zamalloa*, Arrasateko Udala, 2000, p. 322 y 329.
3. E. Garibay y Zamalloa, *Los XL libros del Compendio Historial de las Chrónicas y universal Historia de todos los Reynos de España*, Plantin, 1571.
4. "Cómo en este tiempo en la prouincia de Guipúzcoa, fue hallada la deuotíssima ymagen de nuestra Señora de Arançaçu en vn desierto de la villa de Oñate, y los sucessos más señalados, que esta santa casa ha tenido, hasta quedar en poder de religiosos de la orden de los Menores de la obseruancia": Garibay 1571, lib. XVII, cap. XXV (II, pp. 1126-1132).

*15. orrialdea*
Paranympho Celeste. Historia de la mystica zarza, milagrosa Imagen y prodigioso Santuario de Aránzazu *lanaren azala. Juan de Luzuriagak idatzi zuen eta Mexikon argitaratu zen (1686).*

Página 15
Portada de *Paranympho Celeste. Historia de la mystica zarza, milagrosa Imagen y prodigioso Santuario de Aránzazu*, escrita por Fr. Juan de Luzuriaga e impresa en México (1686).

*gure jaunak nire bizitza eralda nezan mesedea egin zidanean, gogoan dut nire ariman probetxuren bat jaso izana, gauez eliza haren barruan beilan ari nintzela". Iñigo Loiolakoaren aitorpena zen, Loiolako Ignazio, Jesusen Konpainiaren sortzailea izango zenarena, hain zuzen.*
*Mende erdi bat geroago, 1572ko otsailaren lehenengo ostiralean, beste erromes bat iritsi zen, oraingo honetan, Flandesetik zetorrena. Ez zen arma gizona eta ez zen Herbehereetako matxinadari aurre egiten zuten Espainiako Tertzioetako partaide izana; aitzitik, Frantzian barrena ("hainbeste heresia eta justiziarik gabeko gaiztakeriaz betetako lurra"), Anbereseko* Plantin *tailer sonatuetatik zetorren bueltan.*
*Bere bizitzako oroitzapenetan honela idazten zuen[2]: "Gaur goizeko hamarretan San Frantziskoren ordenaren erlijiosoen Arantzazuko Andra Mariren monastegi jainkotiarrera iritsi naiz, Flandesen eginiko botoa betetzearren, hain zuzen ere, Espainiara bizirik iritsiz gero, etxe saindu hau bisitatu gabe nire etxean ez sartzekoa".*
*Esteban Garibai Zamalloa zen erromesa eta* Los XL libros del Compendio Historial de las Chrónicas y universal Historia de todos los Reynos de España *(Espainiako Erreinu guztietako Kroniken eta Historia Unibertsalaren Bilduma Historikoaren XL Liburuak) izeneko obra handia argitaratu berria zuen. Hori dela eta, "Espainia osoko lehenengo historialari nagusia izan zen, zorrotz hartuta" (F. Arocena) eta Portugal eta Gaztelako planetako inperio bikoitzeko errege zen Felipe II-en "Maiestatearen Kronista" izatera iritsiko zen (1592)[3].*
*Loiolako Ignazio, gerora saindu izendatuko zena, zein Garibai kronista lehenengo Oñatitik, eta laster eskualdetik, inguruko probintzietatik eta Euskal Herri osotik ere, aspalditik, Arantzazura igotzen ziren erromes ugarietako batzuk besterik ez ziren. Arantzazu* Santutegi *bihurtua zen, benetan.*
*Garibai Arantzazutik legoa gutxitara zegoen Arrasateko semea zen. XV. mendearen amaieran Santutegirainoko bidea luberritu zuten olagizon eta meatzarien hiribildua da Arrasate, eta, XX. mendean, euskal industriaren kooperatibismoaren sorleku (*Fagor *eta beste hainbat). Garibaik bere Penintsularen historia orokorrean Arantzazuri buruzko kapitulu oso bat idatzi zuen[4], eta, bertan aurki ditzakegu inprimatutako lehenengo berriak. Erromesa*

porque cuando Dios N. S. me hizo merced para que yo hiciese alguna mutación de mi vida, me acuerdo haber recibido algún provecho en mi ánima velando en el cuerpo de aquella iglesia de noche". Era una confesión de Íñigo de Loyola, el futuro Ignacio de Loyola, fundador de la Compañía de Jesús.
Medio siglo después, el viernes primero de febrero de 1572, llegaba también otro peregrino, en este caso desde Flandes. No era hombre de armas ni había formado parte de los Tercios españoles que hacían frente a la rebelión de los Países Bajos, sino que volvía, por Francia ("tierra de tantas herejías y maldades sin justicia"), de los bien reputados talleres de Plantin, en Amberes.
Tal como escribiría en sus *Memorias*[2]: "llegué esta mañana a las diez al devoto monesterio de Nuestra Señora de Arançaçu de religiosos de la orden de Sanct Francisco, por cumplir el voto que en Flandes había hecho, si con vida llegaba a España, de no entrar en mi casa hasta visitar esta sancta casa".
El peregrino se llamaba Esteban de Garibay y Zamalloa, acababa de publicar una obra monumental intitulada *Los XL libros del Compendio Historial de las Chrónicas y universal Historia de todos los Reynos de España*, y por ello fue "en términos absolutamente estrictos el primer historiador general conjunto de España" (F. Arocena) y llegaría a ser "Cronista de Su Majestad" Felipe II (1592), rey ya del doble Imperio planetario luso-castellano[3].
Lo mismo el futuro santo, Ignacio de Loyola, como el cronista Garibay eran sólo una muestra de la concurrencia de romeros que ya desde años atrás subía a Arantzazu, primero de Oñate y muy pronto de la comarca, las provincias aledañas y de toda Euskal Herria. Arantzazu había venido a ser, en verdad, un *Santuario*.
Garibay era hijo de Arrasate/Mondragón, a escasas leguas de Arantzazu, Villa ésta de ferrones y de "benaqueros" que roturaron el camino hasta el Santuario a fines del siglo XV, y en el siglo XX, cuna del Cooperativismo industrial vasco (*Fagor* y compañía). Es el caso que Garibay consagró en su historia general de la Península todo un capítulo a Arantzazu[4], y en él tenemos las primeras noticias impresas del mismo. Además de peregrino, Garibay fue por tanto cronista de los orígenes del Santuario. Su narración merece ser recogida en estas páginas: "...según tengo relación cierta de un viejo de ciento y siete

# PARANYMPHO
# CELESTE
## HISTORIA

DE LA MYSTICA ZARZA, MILAGROSA
Imagen, y prodigioso Santuario de
* * ARANZAZU * *
DE RELIGIOSOS OBSERVANTES DE N.
Seraphico Padre SAN FRANCISCO
EN LA PROVINCIA DE GUYPUZCOA
DE LA REGION DE
CANTABRIA,
ESCRIBELA, Y CONSAGRALA A LA
Soberana Reyna de Angeles, y hombres

MARIA

SANTISSIMA SEÑORA NUESTRA

*EL*

*M. R. P. Fr. JUAN DE LUZURIAGA,*
*Predicador Apostolico, Lector Jubilado, Padre de las Santas Provincias de Cantabria, y Valencia, y Comissario General de todas las de Nueva-España de Nuestro Padre*
*SAN FRANCISCO.*

* * CON LICENCIA DE LOS SUPERIORES: * *
En Mexico, por los Herederos de la Viuda de Bernardo Calderon. Año de 1686.


COMPENDIO HISTORIAL DE LAS CHRONICAS Y VNIVERSAL HISTORIA DE TODOS LOS REYNOS D'ESPAÑA, DONDE SE ESCRIVEN LAS VIDAS DE LOS REYES DE CASTILLA, Y LEON.

*Prosiguese tambien la sucesion de los Emperadores Occidentales y Orientales.*

Compuesto por Esteuan de Garibây y Çamálloa, de nacion Cantabro, vezino de la villa de Mondragon, de la prouincia de Guipuzcoa.

IMPRESO EN ANVERS,
Por Christophoro Plantino, prototypographo de la Catholica Magestad, a costa d'el Autor, con los priuilegios al principio notados. 1571.

*5. J. Intxausti (2003b):* "Arantzazu, en el contexto de los Santuarios cristianos" *(Arantzazu, kristau Santutegien testuinguruan), Intxausti 2003a, 18-57. orr. (lehenago aipatua).*

5. J. Intxausti (2003b), "Arantzazu, en el contexto de los Santuarios cristianos", en J. Intxausti 2003a, pp. 18-57 (citado más adelante).

*Goialdean*
*Esteban de Garibairen* Los XL libros del Compendio Historial de las Chrónicas y universal Historia de todos los Reynos de España *liburuaren lehen argitaraldiko lehen orrialdean azaldu zen ezkutua. Lana Anberesen argitaratu zen 1571an.*

*17. orrialdea*
*Arantzazuko Ama Birjinaren grabatua (XIX. mendea).*

Arriba
Escudo que aparece en la primera página de la primera edición de *Los XL libros del Compendio Historial de las Chrónicas y universal Historia de todos los Reynos de España*, de Esteban de Garibay, impreso en Amberes en 1571.

Página 17
Grabado de la Virgen de Arantzazu (siglo XIX).

*izateaz gain, Garibai, beraz, Santutegiaren jatorrien kronista izan zen. Bere narrazioa orrialde hauetan jasotzea merezi du: "...irudi saindua aurkitu zen garaian hamar urteko mutila zen ehun eta zazpi urteko gizon zahar batek eta laurogeita hamar urtez goitiko beste batzuek kontatu zidatenez. Mila eta laurehun eta hirurogeita bederatzigarren urtean, gutxi gorabehera, azienda zaintzen zuen mutiko bat, Rodrigo Baltzategi izenekoa... artzain gazte hari bere Semearen ondoan ageri zen tamaina txikiko Andra Mariren deboziozko irudi bat agertu zitzaion... ondoan zintzarri handi baten moduko kanpai bat zuela... Gero hizketan hasi ziren, eta justizia eta gainontzeko opariak ematen, eta, hain zuzen ere, ermita bat laster batean egin zedin [...] eta ondoren Arantzazuko Andra Mari izena jarri zioten, Kantabriako eskualdeko hizkuntzan Arantza lekuko Andra Mari esan nahi duena, izan ere, gaztelerazko espino landareari euskaraz arantza deitzen zaio... gero hasi ziren ohiko erromesaldiak bisitatu eta bertaratzen [...]. Hiribildu gertukoenek... Oñatik eta Arrasatek, laster bi herriek bateratuta, kofradia bat eratu zuten. Arrasateko meatzariak, lur azpitik altzairu eta burdina ateratzea lanbide zutenak, haitzak eta leku malkarrak puskatzen iaioak, altzairua lantzen zuten hiribilduko bertako kurrika-langileen laguntzaz, bideak puskatzen eta berdintzen hasi ziren".*
*Horiek dira ondorengo historiografiak zabaldu zituen berriak. Hastapen horiekin definitzen joan zen Santutegia: "misteriozko objektu" baten (Irudia) aurkikuntza "aukeratutako leku" batean, "agerpen" horren aldarrikapena, herri eta erakundeen erreakzioa, Ermita baten eta erromes bide baten eraikuntza, Erromesaldiaren antolaketa eta erakundetzea, Anaikideen Ermandadearen eraketa, eta Garibairen beraren testuari jarraiki, historia eta legendaren artean sortutako narrazio hagiografikoa.*
*Edozein kristau Santutegiren oinarrizko datuak dira, eta baita Arantzazukoak ere[5].*
*Garibaik, berehala, ondorengo historiarako beste faktore erabakigarri bat aipatzen du, hain zuzen ere, Erlijiosoen Elkarte baten presentziari dagokiona: "...erlijio batzuek hemen komentu bat eratzeko nahia izan zuten...". Beste hainbat Santutegirekin gertatu zen bezala, elkarren jarraian izan ziren lehenengo Erlijio Elkarteen historiak (c. 1493...) eta frantziskotarren behin*

años, que al tiempo que la sancta ymagen se halló, era moço de diez años, y de otros de a nouenta y más años. En este año de mil y quatrocientos y sesenta y nueue, uno más o menos, vn moço, que guardaua ganado, llamado Rodrigo de Balçategui... a este moço pastor [permitió] se le apareciese... una deuota ymagen de la Virgen María, de pequeña proporción con la figura de su Hijo... y una campana a manera de grande cencerro al lado. – Luego començaron a platicar, y conferir la justicia y los demás presentes, que con toda breuedad se hiciesse vna hermita [...] a la qual llamaron luego nuestra Señora de Arançaçu, que en lengua de la mesma región de Cantabria, es lo mesmo que dezir, nuestra Señora del espino, porque al espino en esta lengua llaman Arança... luego començaron a visitar y frequentar con ordinarias peregrinaciones [...]. Las villas más cercanas... Oñate y Mondragón, no tardaron, vnánimes ambos pueblos, de instituyr una confradía. Los benaqueros de Mondragón, que son gentes, que por causa de su officio, que es de sacar debaxo de tierra metales de azero y hierro, son diestros en romper peñas y cosas fragosas, començaron, siendo ayudados de los tenazeros de la mesma villa, que son los que labran el azero, a romper y allanar los caminos".
Estas son las primeras noticias que la historiografía posterior se encargará de difundir. Con esos comienzos se fue definiendo el Santuario: con el hallazgo de un "objeto mistérico" (la Imagen) en un "lugar elegido", la proclamación de esa "aparición", la reacción popular e institucional, la construcción de una Ermita y una ruta romera, la organización e institucionalización de la Peregrinación, la constitución de la Hermandad de cofrades, y, por el texto mismo de Garibay, con la incipiente narración hagiográfica en las lindes de la historia y la leyenda.
Son los datos básicos de cualquier Santuario cristiano, y también de Arantzazu[5].
Garibay alude, inmediatamente, a otro factor decisivo para la historia ulterior, el de la presencia de una Comunidad de religiosos: "...tomaron algunas religiones desseo de fabricar aquí un conuento...". Como en el caso de tantos otros Santuarios, la historia de las primeras Comunidades religiosas que se sucedieron (c. 1493...) y la definitiva presencia franciscana (1514...) posibilitaron y aseguraron no sólo la atención local al culto y a los peregrinos, sino






6. *Santutegiko "beata" edo "seroren" eta hurrenez hurreneko ordenen jatorriei buruz: K. Zubizarreta,* Los orígenes del franciscanismo en Arantzazu. Glosas histórico-críticas sobre el tema. / Frantziskotar bizitzaren hasiera Arantzazun. Dokumentu historikoak eta iruzkin kritikoak, *Oñati-Arantzazu, 2001. J. Laka,* "Presencia mercedaria en el País Vasco y Navarra. Recorrido histórico con escala en Arantzazu" *(Euskal Herri eta Nafarroako Mesedetakoen presentzia. Ibilbide historikoa, Arantzazun eskala eginez), in J. Intxausti (ed.), 2004a, 457-472. orr.*

6. Sobre los orígenes de "beatas" o "seroras" y sucesivas Órdenes en el Santuario: K. Zubizarreta, *Los orígenes del franciscanismo en Arantzazu. Glosas histórico-críticas sobre el tema / Frantziskotar bizitzaren hasiera Arantzazun. Dokumentu historikoak eta iruzkin kritikoak,* Oñate-Arantzazu, 2001. J. Laka, "Presencia mercedaria en el País Vasco y Navarra. Recorrido histórico con escala en Arantzazu", en J. Intxausti (ed.), 2004a, pp. 457-472.

*Goialdean*
*Gipuzkoako mapa, Hortelius juduak egindako diseinuaren araberakoa. Mapa hau* Guipuzcoae Regionis Typus *liburuan agertu zen (XVI. mendea).*

*19. orrialdea*
*Arantzazuko Ama Birjinaren irudia (XIX. mendea).*

Arriba
Mapa de la provincia de Gipuzkoa que reproduce un diseño del judío Hortelius, estampado en la obra *Guipuzcoae Regionis Typus* (siglo XVI).

Página 19
Estampa de la Virgen de Arantzazu (siglo XIX).

*betiko presentziak (1514...) kultuarekiko eta erromesekiko bertako arreta ahalbidetu eta ziurtatu zuten, eta baita santutegiko "mezuaren" hedapena ere (penitentziazko kristaua, Andra Marirekiko debozioazkoa, Frantziskotar espirituala) Penintsulako geografia zabalean, Arantzazu nazioarteko euskal emigrazioan sartzea eta Arantzazuko historia eta legendaren arteko memoria sortzea (predikatu edo idatzia), bere irudi multzoarekin (mirariak, agerpenak, faboreak, bizipen pertsonalak), eta behin eta berriro eliza eta komentuaren eraikuntza fisikoarekin (1568, 1623, 1846, 1956).*
*Oro har irudiaren aurkikuntza euskal gizartearen oso etapa asaldatu batekin bat datorrela gogoratu da; 1450-1475 urteetan, gizarte eta politika borrokarik odoltsuenetako hamarkadak izan ziren. Ahaide Nagusiak deitutakoek, anakroniko samarrak diren hitzetan "gerraren jaun feudaltzat" jo ditzakegunek, erregearen babesa zuten Hiribilduetatik sortutako hiri burgesiari azkenekoz aurre egiten zioten.*
*"Agerpena" baketzerako dei eta zeinutzat ulertu zen, eta hainbat ekimen sortu berriko Santutegiari gizarte edukia ematen joan ziren. Lehenengo gertakaria eskualdeko herri erreakzioa izan zen, "bertara" azalduz, eta, baliabide material eta erakunde izaerakoez hornituz.*
*Berehala, Ama Birjinarentzako ermita bat eraiki zen, bidea ireki zen, sinestun laikoen Kofradia bat eratu zen (1489an; 1491ean 72 anaikideez osatua zen),* serora *edo* beatentzako *ostatu bat eraiki zen (1491ean). Rodrigoren irudia jatorrien laino artean lausotu zen bitartean, emakumezko batek, Juana Arriaranek (c. 1450-1509), lehenengo planoa bete zuen 1491-1509 urte bitartean, juxtu lehenengo Erlijio Elkarteen prestakuntza eta bizitzako etapan. Emakumezkoen taldearen aitzindari izan zen eta Elkartean izan ziren aldaketetan eraginkortasunez jardun zuen.*
*Izan ere, 1493 eta 1514 bitartean igarotako bi hamarkadetan Erlijio Ordena batzuk izan ziren Santutegiko buru: Mesedetakoak (1493-1498), Hirugarrendar Frantziskotarrak, laster Obserbantziara pasatutakoak (c. 1498-1509), Jeronimotarrak (1509), Domingotarrak (1510-1513), eta, azkenik, eta, behin betiko, 1514. urtetik aurrera, frantziskotar obserbanteak. Ordezkapen horiek proiektuaren zailtasun eta ahultasuna zein erlijio erakundeek Arantzazun behin eta berriro azaldutako interesa erakusten ditu, istilu eta liskarrak eraginez*[6].

también la difusión del "mensaje" santuarial (cristiano penitencial, mariano devocional, franciscano espiritual) por una amplia geografía peninsular, la inserción internacional de Arantzazu en la Emigración vasca y la creación (predicada o escrita) de la memoria histórico-legendaria de Arantzazu, con su imaginario (milagros, apariciones, favores, vivencias personales), y una y otra vez la construcción física de la iglesia y el convento (1568, 1623, 1846, 1956).
Se ha recordado generalmente que el hallazgo de la imagen se corresponde con una etapa particularmente turbulenta en la sociedad vasca; fueron décadas de las más sangrientas luchas socio-políticas, allá por los años 1450-1475.
Los llamados Parientes Mayores, que podemos calificar en términos algo anacrónicos como "señores feudales de la guerra", daban la última batalla a la burguesía urbana emergente de las Villas que contaban con la protección real.
La "aparición" fue entendida como llamada y signo para la pacificación, y diversas iniciativas fueron dando contenido social al Santuario naciente.
El hecho primero es la reacción popular de la comarca, no sólo acudiendo al "lugar", sino también dotándolo de medios materiales e institucionales.
Inmediatamente, se construyó una Ermita para la Virgen, se abrió el camino, se constituyó una Cofradía de creyentes laicos (1489; de 72 cofrades en 1491), se edificó un albergue para las *seroras* o beatas (1491). Mientras la figura de Rodrigo se diluye en la niebla de los orígenes, un personaje femenino, Juana de Arriaran (c. 1450-1509), va a ocupar el primer plano aproximadamente en los años 1491-1509, justo en la etapa de formación y vida de la primeras Comunidades religiosas. Ella lideró el grupo femenino, y ella actuó con eficacia en los sucesivos cambios de Comunidad.
En efecto, en las dos décadas que van de 1493 a 1514 son varias las Órdenes religiosas que se sucedieron al frente del Santuario: mercedarios (1493-1498), franciscanos terciarios, acogidos pronto a la Observancia (c. 1498-1509), jerónimos (1509), dominicos (1510-1513), y por último y definitivamente, franciscanos observantes, a partir de 1514. Estas sustituciones muestran tanto la dificultad y debilidad del proyecto, como el interés reiterado de las instituciones religiosas por Arantzazu, dando lugar a conflictos y litigios[6].
Reafirmada la presencia franciscana por la Bula






*7. J. Intxausti, "Frantziskotarren Euskal Herriko historia", in J. Intxausti (ed.),* Euskal Herriko erlijiosoen historia, *Arantzazu, 2004a, I, 352. or.*

7. J. Intxausti, "Frantziskotarren Euskal Herriko historia", en J. Intxausti (ed.), *Euskal Herriko erlijiosoen historia*, Arantzazu, 2004a, I, p. 352.

*Goialdean*
*"Arantzan-zu" lema duen Arantzazuko armarriaren ziurtagiria (1925).*

*21. orrialdea*
Arantzazuko Ama Birjina *koadroaren xehetasuna. Cristóbal de Villalpando mexikar pintoreak (1668-1714) egindakoa dela uste da, eta irudian, lehen planoan, txirula jotzen ari den artzain bat eta moja dohantzaile bat ageri dira.*

Arriba
Certificado del escudo de Arantzazu con el lema "Arantzan-zu" (1925).

Página 21
Detalle de *La Virgen de Aránzazu* atribuida al pintor mexicano Cristóbal de Villalpando (1668-1714), incorpora las imágenes de un pastor tocando la flauta y una monja donante en primer término.

*Alejandro VI.aren Bula* Sacrae Religionisek *frantziskotarren presentzia baieztatuta (1501) eta* Rotako Auzitegiak *Ordenaren eskubideak berretsita (1514), Arantzazu etorkizun hobe eta sendoago baterantz ireki ahal izan zen. Ondorengo historiak lau etapa desberdin dakartza: jatorri eta sendotze garaikoa (1468-1553), hazkunde eta loraldi garaikoa (1553-1843), suteak eta sekularizazioak eragindako parentesia (1834-1878), eta XX. mendeko zaharberritze eta ospearen etapa. (1878...).*
*1514.etik, Santutegia Euskal Herriko Frantziskotar Elkarteen inguruan kokatuta geratu zen. Asisko San Frantziskoren ondorengoak seguru asko herrian zeuden, dagoeneko, 1220. urte inguru, eta beren etxe sareak 1500. urtean 16 fraide-komentu zeuzkan. XVI. mendearen erdialdean, 1567an, frantziskotarren familiako fraide eta mojek Euskal Herri osoan 42 komentu zituen irekita, eta Antzinako Erregimenean zehar modu zabalenean ezarritako Erlijio Ordena izango zen[7].*
*Esan behar da, mende hartan, euskal frantziskotarrek beren gobernu eta bizitza era autonomoena erdietsi zutela, 1551ean Kantabriako Frantziskotarren Probintzia sortzean (2000.etik, "Arantzazukoa").*
*Bere gobernu zentrala Gasteizen zegoen (neurri handi batean, Santutegiak Araban sustraituta zuen proiekzioa azal dezakeena), eta XVI. mendean Gipuzkoako probintzia zibilean hedapen dinamikoena izan zuen (Arantzazu bera, Elgoibar, Sasiola, Arrasate, Tolosa, eta laster Donostia, 1606an, eta Zarautz, 1610ean). Azkenean, Herriko frantziskotarren geografiak bere euskal eta kantabriar zein nafar eta lapurtar testuinguruan, ia berrogei gizonezkoen komentu inguru bildu zituen. Arantzazu erlijio multzo horretan jasota geratu zen.*
*Elkartea hazten joan zen, 1585ean 36 fraide izatetik, 1680an 80 eta 1768an 95 izan arte, Santutegia "halako leku malkar eta latzean, halako basamortu landu gabean, inor ez bizitzeko moduko halako mendian izateari utzi gabe" (Gamarra, 1648); hala ere, bertigoa emateko moduko amildegietarako eta negu latzetarako egindako eraikuntza sendoak zituen.*
*Santutegia kultur eraikuntza bat zen, naturaren alderantziz egina eta oso giza faktore anitzek zehaztu zuten bere bizimodua.*

*Sacrae Religionis*, de Alejandro VI (1501) y ratificados los derechos de la Orden por la Rota (1514), Arantzazu pudo abrirse hacia un futuro mejor y más firme. La historia que sigue supone cuatro etapas diversas: la de los orígenes y el afianzamiento (1468-1553), la del crecimiento y florecimiento (1553-1843), el paréntesis originado por el incendio y la exclaustración (1834-1878), y la etapa de la restauración y esplendor del siglo XX (1878...).
Desde 1514 el Santuario quedó inserto en la órbita de las Comunidades franciscanas de Euskal Herria. Los hijos de San Francisco de Asís seguramente estaban ya presentes en el país desde c. 1220, y la red de sus casas disponía de 16 conventos de frailes en 1500. A mediados del siglo XVI, en 1567, los frailes y las monjas de la familia franciscana tenían abiertos 42 conventos en toda Euskal Herria, y vendrían a ser la Orden religiosa más ampliamente implantada, durante el Antiguo Régimen[7].
Hay que señalar también que en ese siglo, los franciscanos vascos alcanzaron una forma más autónoma de gobierno y vida, al nacer en 1551 la Provincia Franciscana de Cantabria (desde 2000, "de Arantzazu"). Su gobierno central residía en Vitoria-Gasteiz (lo que en buena medida puede explicar la arraigada proyección alavesa del Santuario), y el siglo XVI será el de su expansión más dinámica en la provincia civil de Gipuzkoa (Arantzazu mismo, Elgoibar, Sasiola, Arrasate, Tolosa, y pronto San Sebastián, en 1606, y Zarautz, 1610). Finalmente, la geografía franciscana del País, englobó, en su contexto vasco-cántabro y navarro-labortano, casi una cuarentena de conventos masculinos.
Arantzazu quedó incluido en ese conjunto religioso.
La Comunidad fue creciendo desde los 36 frailes de 1585 hasta los 80 de 1680 y los 95 de 1768, sin que el Santuario dejara de estar "en puesto tan áspero, y fragoso, en desierto tan inculto, en montaña tan inhabitable" (Gamarra, 1648); pero con sólidas edificaciones a prueba de barrancos de vértigo y de crudos inviernos.
El Santuario era una construcción cultural, hecha a contrapelo de la naturaleza y cuya vida determinaron factores humanos muy variados.


NSDARNTZN



8. *Santutegiko eraikuntzen historiarako: K. Zubizarreta,* "Las construcciones de Arantzazu" *(Arantzazuko eraikuntzak), in J. Intxausti 2003a, 101-124. orr.*
9. *I. Etxebarria (ed.),* Arantzazuko balada edo kanta zaharrak, *Arantzazu, 2003 (J. Azurmendiren epilogoa).*

8. Para la historia de las construcciones del Santuario: K. Zubizarreta, "Las construcciones de Arantzazu", en J. Intxausti 2003a, pp. 101-124.
9. I. Etxebarria (ed.), *Arantzazuko balada edo kanta zaharrak*, Arantzazu, 2003 (Epílogo de J. Azurmendi).

*Goialdean eta 23. orrialdea*
*Rodrigo de Balzategi artzainari Ama Birjina agertu zitzaion momentua irudikatzen duen deboziozko irudia, atzean Arantzazuko mendiak dituela. Lanaren egilea Gregorio Hombrados Oñativia da (1902-1978).*

Arriba y página 23
Imagen devota representando la Aparición de la Virgen al pastor Rodrigo de Balzategi con las montañas de Arantzazu al fondo, obra de 1927 de Gregorio Hombrados Oñativia (1902-1978).

Santutegiaren eraikuntza (1553-1834)
*Gertakari tamalgarri batek eman zion hasiera etapa berriari, alegia, 1553ko abenduaren 26ko suteak, erlijioso eta erromesen gizarte eta erlijio bizitza probatuz. Hamabost urte geroago, Santutegia bere lehengora itzulia zen, alegia, eliza, komentu eta nobiziotegi, ostatu eta erizaindegia izatera: "Orain Jainkoari esker, Kantabriako probintzian dauden komentu onenetakoa da" (Garibai). Arnas aldia izan zen eta baita proiektu berriak ere (Kapera Nagusi berria, 1618), hainbat "mirari" ere gertatuz; baina, handik hirurogeita hamar urtetara, 1622ko uztailaren 14an, sua, berriro ere, "debozio handiko eta erromerian eta beren boto eta promesak betetzera joaten ziren nabigatzaileek eta Arabako, Gipuzkoako Probintziako, Frantziako eta beste hainbat lekutako jendeak maiz bisitatua zen santutegiarekin grinatu zen" (Isasti, 1625). Hiru ordutan, sugarrek komentua eta elizako teilatua suntsitu zituzten, Kapera berria salbatu zen arren.*
*Balentrien garaia zen, eta urtebete geroago dena bere onera itzulia zen; bestalde, obra berriak egin ziren, eta, 1622 eta 1647 bitartean, 50.000 dukat gastatu ziren, eta ondorengo hobekuntzek erritmo onean jarraitu zuten: liburutegiko dorreak (1653), klaustroko goiko oinak, Kontzejuaren Aretoa bertan izanik (1660), jantoki handiak, hirugarren ostatuak (bigarrena liburutegi-dorrearen ondoan kokatua zen dagoeneko) eta logela handiak (1686). Amildegiko hutsunearen gainean bost solairutako eraikuntza bat eraiki zen erlijioso gaiak bertan hartzeko[8]. Fraideentzako komentu, nobiziotegi eta ikastetxea eta erromesentzako hiru ostatuak izanik, Santutegia elkarri babesa ematen zioten errealitate eta esperientzi mundu bikoitza zen, erlijio bizitza, kultu, otoitz eta penitentzi, prediku eta kulturarako. Goieneko aldian, Arantzazuk bere burua birsor zezakeen.*
*Erromantze bildumaren herri interpretazioa alde batera utzi gabe[9], XVII. mendearen erdialdetik, Arantzazuk bere historiografia eduki ahal izan zuen, mirariak eta legendak barne: iragana misterio, sineskera eta egintzen aureolaz inguratuko zuen hagiografia zen.*
*Beraz, sinestunen fedeak, erlijio bizipenek, teologia hausnarketak eta frantziskotarren espiritualtasunak ernatutako bere burua ulertzeko ahalmena sortzen hasia zen. Arantzazuko*

*La "construcción" del Santuario (1553-1834)*
La nueva etapa se abre con un hecho luctuoso, el incendio del 26 de diciembre 1553, hecho que puso a prueba la voluntad social y religiosa de religiosos y peregrinos. Quince años después el Santuario había sido devuelto a lo que fuera, con su iglesia, convento y noviciado, hospedería y enfermería: "Agora por la bondad de Dios, está vno de los mejores conuentos, que ay en la prouincia de Cantabria" (Garibay). Hubo un respiro y nuevos proyectos (nueva Capilla Mayor, 1618), sin que faltaran "milagros"; pero a los setenta años, el 14 de julio de 1622, el fuego se cebó de nuevo en aquel Santuario "de gran devoción y muy frecuentado de los navegantes y de la gente de Alaba, de la Provincia de Guipúzcoa y de Francia y otras partes, que van en romería y por cumplir sus votos y promesas" (Isasti, 1625). En tres horas las llamas arrasaron el convento y la cubierta de la iglesia, salvándose la nueva Capilla.
Era la hora de las proezas, y un año más tarde todo volvía a su ser; se emprendieron, además, nuevas obras en las que se gastaron 50.000 ducados entre y 1622 y 1647, continuándose a buen ritmo las mejoras posteriores: la torre de la biblioteca (1653), el piso alto del claustro con su Salón concejil (1660), el gran refectorio, la tercera hospedería (la segunda había sido ubicada junto a la torre-biblioteca), el gran dormitorio (1686). Sobre el vacío del precipicio creció una edificación de cinco plantas, para acoger a los aspirantes religiosos[8].
Con su convento, noviciado y estudiantado para los frailes, y las tres hospederías para los peregrinos, el Santuario era un doble mundo de realidades y experiencias que se apoyaban mutuamente, para la vida religiosa, el culto, la oración y penitencia, la predicación y la cultura. En pleno esplendor, Arantzazu podía también pensarse a sí mismo.
Sin dejar de lado la interpretación popular del romancero[9], desde mediados del siglo XVII, Arantzazu pudo disponer de su historiografía, incluidos prodigios y leyendas: era la hagiografía que iba a aureolar el pasado, de misterios, creencias y hechos. Nacía, por tanto, una autocomprensión, fecundada por la fe de los creyentes, las vivencias religiosas, la reflexión teológica y la espiritualidad franciscana.
Los primeros historiadores de Arantzazu se hicieron eco de ello.





*lehenengo historialariek horren berri eman zuten. Santutegiko antzinako historietatik Okariz-ena galdu zen, baten bat artxiboan geratu zen argitaratu gabe (Etxeberria, 1800) eta beste bat berandu argitaratu zen (Gamarra, 1648: 1966)[10]; baten bat garaiz argitaratu zen baina Ameriketan, eta, horrek aditzera emango diren arrazoiak direla eta, ez gaitu gehiegi harritu behar. Juan de Luzuriagaren* Paranympho Celeste-ren *kasua da (Mexiko, 1686)[11], edota, J. José Arlegiren* Elogios de Ntra. Señora de Aránzazu-rena *(Arantzazuko Andra Mariren Laudorioak; Mexiko, 1719)[12].*
*Idatzi horiek Arantzazuko Andra Mariri buruzko predikuan adibide ugari eragin zituzten, geroko belaunaldien fedea eta irudi multzoa elikatu zituzten, eta, XX. mendean, literatura balioaz hornitu ziren S. Mitxelenaren lumaren bidez, izan ere, poemaz gain (*Arantzazu, *1949), Santutegiari buruzko entseiu historiko bat utzi zigun (*Ama-Semeak, *1951)[13]. Ikuspegi sakonago batez, Bitoriano Gandiaga (1928-2001), Santutegian bizi zen poeta, izan da Arantzazu maila unibertsalagoko literatura erreferentziazko leku bilakatu duena[14].*
